

3.3.1. UDALERRIAK. HERRITARREN SEGURTASUNA ETA ELKARBIZITZA. EREMU PUBLIKOAREN KUDEAKETA.

ACTIVIDADES EN LA VÍA PÚBLICA

Baimendutako jarduerak	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Kirol-jarduerak	64	52	61	68	68	66
Eskeko mahaiak eta mahai informatiboak	51	54	67	59	68	81
Kultura-jarduerak	12	5	15	12	27	17
Erakusketak eta publizitate-kanpainak	40	33	43	39	47	51
Informazio- eta publizitate-autobusak	27	48	33	17	11	7
Merkataritza-jarduerak	20	33	38	31	25	17
Festa-ekitaldiak	235	274	254	271	201	186
Desfileak	50	59	90	68	83	88
Filmaketak	15	17	19	24	24	19
Auzoetako festak	11	11	12	11	12	12
Askotariko baimenak	9	54	30	28	53	86
Terrazak	117	147	174	168	110	104
Jarduerak sanferminetan	91	44	48	44	89	83
Guztira	742	831	907	840	818	817

TERRAZAK ETA ELEMENTUAK BIDE PUBLIKOAN

2018ko amaieran, 696 lizentzia zeuden emanda bide publikoan terrazak jartzeko, eta 96 lizentzia beste era batzuetako okupazioetarako (loreontzi-euskarriak, erakustokiak, etab.).

MANIFESTAZIOAK ETA ELKARRETARATZEAK

Bilera Eskubidea arautzen duen eta apirilaren 21eko 9/1999 Lege Organikoak aldatu zuen uztailaren 15eko 9/1983 Lege Organikoa betez, Herritarren Segurtasuneko eta Elkarbizitzako Alorrak txostena eman du Gobernu Ordezkaritzak Iruñean baimendutako elkarretaratze eta manifestazio guztiei buruz, eta, gero, zirkulazioa kontrolatu du haietan, normaltasunez egin ahal izateko. Guztira, 885 ekitaldi egin ziren; 776 elkarretaratze eta 109 manifestazio.

GANADU-FERIAK

Sanferminetako ganadu-feria tradizionala, uztailaren 7an egiten da, San Fermin egunean, Iruñeko Agustindarren industrialdeko 14.300 m²-ko lursail batean; Espainiako iparraldeko garrantzitsuenetako bat da. Zaldi-aziendarena da feria: zaldiak, zaldikumeak, astoak eta mandoak. Autonomia-erkidego desberdinetako abeltzainak, tratulariak eta zaldi-zaleak joan ohi dira. 133 eskorta eta hipodromo bat, abereak erakusteko, jarri ziren, eta 56 abeltzain joan ziren, guztira 510 abelburu eramanda.

Urteko bigarren ganadu-feria sanmigeletakoa da, irailaren 29an egiten dena, hori ere Agustindarren industrialdean. Orduan, 91 eskorta arrunt, 12 bikoitz eta hipodromo bat, abereak erakusteko, jarri zituen Udalak.

OBJEKTU GALDUAK

Herritarrek entregatzen dituzten objektu guztiak erregistratu egiten dira datu-base bakar batean. Gehienak, polizia-zerbitzuek, posta-bulegoek, eskualdeko hiri-garraioaren enpresa esleipendunak eta merkataritzaren arloko beste entitateek –hipermerkatuek, kasu– entregatzen dituzte. Objektuak udal-egoitzetan gelditzen dira gordailuan, eta bertako langileak jabeak aurkitzen saiatzen dira. 2018an, guztira, 9.478 objektu erregistratu ziren; 2017an, berriz, 8.405. Jabeei 4.346 itzuli zitzaizkien (3.946, 2017an).

BESTE ZENBAIT JARDUKETA

LANDABENGO AZOKA. Guztira 160 salmenta-postu esleitu zitzaizkien beste horrenbeste titularri. Haietatik 60, produktu jangarrien eremukoak, eta 88 salmenta-postuk jangarriak ez diren produktuak saltzen dituzte. Ostalaritza-jarduerak ez daude baimenduak. Urteko igande guztietan dago zabalik, uztail eta abuztukoetan izan ezik, 09:00etatik 14:30era.

ERREGEEN DESFILEA. Segurtasun-neurriak hartu ziren desfilearen ibilbidean istripuak eragozteko, Foruen plazatik Gazteluko plazaraino. Adibidez, babes-hesia jarri zen, 1.400 hesi iraulezin baino gehiago, eta orgetan lurrerainoko oihalak jartzea exijitu zen, eta desfileko pajeeak alboak zaintzea.